

Suradesako Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, bestek beste, ondorengo jaso zen:

6.- Suradesa Eusko Jaurlaritzak egindako Iruzuraren aurkako Neurrien Planari atxikitzea onartzea, Next Generation funtsak kudeatzeko eskakizun gisa.

Lankidetzaz hitzarmena birgaitze bulego eta birgaitze-gaietako laguntza programen erakunde laguntzaile funtzioak garatzeko, Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3,4 eta 5 programei dagokienez, erakundeek eginkizunak betetzeko orduan, ondoren zerrendatzen diren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) printzipioak bete beharko dituzte;

- Mugarrien eta helburuen jarraipena eta egiaztatzea
- Etiketa berdea eta etiketa digitala.
- Jarduketek ingurumenean dituzten arrisku esanguratsuen azterketa
- Iruzurra saihestea, ustelkeria eta interes-gatazka aztertzea
- Estatuaren laguntzen araubidearen bateragarritasuna egiaztatzea eta finantzaketa bikoitza saihestea.
- Gardentasuna eta jakinarazpena, laguntzen azken hartzaileak identifikatuz.

Eusko Jaurlaritzak iruzurraren aurkako plan bat egin du, eta hitzarmena sinatzen duten sozietateak plan horretara atxiki daitezke, Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eskatutakoa bete ahal izateko.

Hori horrela, Iker Urbinak Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako iruzurraren aurkako planera atxikitzea proposatzen du.

Iker Urbinak proposatutakoa kontutan izanda administrazio Kontseiluko kideek aho batez ZERA ERABAKI DUTE:

Lehena.- Eusko Jaurlaritzak egindako iruzurraren aurkako neurrien planari Suradesa atxikitzea, next generation funtsak kudeatzeko eskakizun gisa.

Bigarrena: Eusko Jaurlaritzak egindako iruzurraren aurkako neurrien planarekin bat egitea sinatzeko ahalmena ematea Lehendakariari eta baita baimena ematen zaio izapidetzean idazketak izan ditzakeen aldaketak aztertu eta onar ditzan, garrantzi txikikoak badira.

Hirugarrena: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari jakinaraztea.

Arrasaten, 2022ko martxoaren .31ean

Zuzendariak  
Izpta.: Iker Urbina